

## Ekonomiari buruzko ikastaroa



### Kordoi Etxea

Urritik abendura / Urtarrilatik apirilera

+55 Jarduera

Hamabostean behin, astelehenetan, 10:00etatik 11:30era.

Normalean, ekonomia ardatz duten albisteetan hizkuntza ulergaitza erabiltzen da. Gai benetan interesgarriak izaten dira, baina kontatzeko moduagatik urrun geratu ohi zaizkigu.

Gaurkotasun ekonomikoaren gai nagusiak hurbilaraztea da ikastaro honen helburua, hizkuntza sinple eta ulerterraz baten bidez, zer, zergatik eta zertarako gertatzen ari den ulertu dezagun.